



**orereta
ikastola**
AURRERA!

DBH: AUKERAKO GAIAK INFORMAZIO XEHEA

PERTSONA EREDUA:

Euskal kulturarekiko konprometitua | Erabaki hartzaile kritikoa | Autonomoa

DBH2	Pentsamendu autonomoaren eta kritikoaren hastapenak I: Komunikazio tailerra	Irakasgai honek helburu estrategikotzat du behar diren abileziak finkatzea etengabe aldatzen ari den mundu konplexuaren aurrean ikasleen pentsamendu-autonomia lortzeko. Elkarrizketarako, komunikaziorako, zalantzan jartzeko eta gutxieneko gogoetarako jarrera sendotu nahi da ikasleengan, gizabanako gisa eta gizarteko kide gisa garapen egokia izan dezaten. Era berean, ikasleek komunikatzeko dituzten tresnak ezagutu, landuko dira ; haien indargune eta arriskuez ere jabetuz. Euskaratik eta euskaraz gizartearekiko begirada zorroztea, euskara eta euskal kulturarekiko/hedabideekiko konpromisoan eragitea.
------	---	--

PERTSONA EREDUA:

Euskal kulturarekiko konprometitua |

Erabaki hartzaile kritikoa | Autonomoa

DBH3	Pentsamendu autonomoaren eta kritikoaren hastapenak II: Komunikazio tailerra	Irakasgai honek helburu estrategikotzat du behar diren abileziak finkatzea etengabe aldatzen ari den mundu konplexuaren aurrean ikasleen pentsamendu-autonomia lortzeko. Elkarrizketarako, komunikaziorako, zalantzan jartzeko eta gutxieneko gogoetarako jarrera sendotu nahi da ikasleengan, gizabanako gisa eta gizarteko kide gisa garapen egokia izan dezaten. Era berean, ikasleek komunikatzeko dituzten tresnak ezagutu, landuko dira; haien indargune eta arriskuez ere jabetuz. Euskaratik eta euskaraz gizartearekiko begirada zorroztea, euskara eta euskal kulturarekiko/hedabideekiko konpromisoan eragitea.
	Kultura Klasikoa	Ikasleei greziar eta latindar zibilizazioen azterketarako lehen hurbilketa orokorra eskaintzea du helburu, haiek ezagutzearen bidez mundu klasikoaren ondareak mendebaldeko kulturaren duen iraupenaz, eraginaz eta presentziaz jabetu daitezen eta beren kultura-identitatea eta europar kontzientzia hobeto uler dezaten. Euskara eta euskal kulturatik abiatuta, kultur aniztasuna elikatu eta ezagutzea ahalbidetuko du irakasgai honek.

PERTSONA EREDUA:

Euskal kulturarekiko konprometitua |

Erabaki hartzaile kritikoa | Autonomoa

DBH4	Garapen pertsonalari eta sozialari aplikatutako filosofia	Irakasgaiak helburu du, lehenik eta behin, ikasleen funtsezko kezka eta kezka existentzialak -galdera eta proposamen filosofiko handiekin lotutakoak- analizatzeko espazioa eskaintzea. Bigarrenik, ikasleei zalantzan jartzeko eta gogoeta egiteko gutxieneko jarrera eta oinarritzko ezagutzak ematea, gizabanako eta gizarteko kide gisa garapen egokia izan dezaten. Azkenik, Filosofiak berekin dakar, halaber, pertsona ororen garapen integralerako behar diren arrazoiari eta emozioei buruz gogoeta kritikoa egitea. Ikasleak erabaki-hartzaile kritikoak eta autonomoak izatea ahalbidetuko du.
------	---	--

PERTSONA EREDUA:

Sortzailea

DBH1	Sormen-tailerra I	Irakasgai honek sormena eta garapen artistikoa sustatzen ditu banakako eta taldeko proiektuen bidez. Ikasleek hainbat teknika plastiko lantzen dituzte, euren irudimena eta trebetasunak indartuz . Proiektu dinamikoak eta moldagarriak garatzen dira, norbere interesen baitan, askatasunez adierazteko aukera ematen dutenak. Ingurumen-kontzientzia garatzeko ere aproposa da irakasgai hau, birziklatutako materialekin lan egiten ahalegintzen baikara, kontsumo arduratsuari eta birziklapenak artean duen balioaren gaineko hausnarketa sustatuz.
DBH2	Sormen-tailerra II	
DBH3	Adierazpen artistikoaren hastapenak	Irakasgai honek zuzeneko lotura du hezkuntza plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoarekin, eta laugarren ikasturtean jarraipena izango du adierazpen artistikoarekin. Funtsezko zenbait ardatzetan oinarritzen da: teknika artistiko nagusiaren ezagutza, eta adierazpen-gaitasunaren, sormenaren, pentsamendu dibergentearen, esperimentazioaren eta berrikuntzaren garapena. Ikuspegi eta balore sortzaileak bultzatzea izango du helburu irakasgai honek.

PERTSONA EREDUA: Sortzailea

DBH4	Arte eszenikoak	Arte eszenikoak (arte dramatikoa eta dantza) irakasgaiaren bidez, interpretazio, sorkuntza, ekoizpen, harrera eta komunikazio eszenikoen prozesuetarako hurbilketa landu nahi da, era integralean eta bizipen gisa. Ikuspegi eta balore sortzaileak bultzatzea izango du helburu.
-------------	-----------------	--

PERTSONA EREDUA: Euskaldun eleanitza

DBH1	Frantsesa I	Euskaldun eleanitzak bultzatzea izango du helburu irakasgai honak.
DBH2	Frantsesa II	
DBH3	Frantsesa III	

PERTSONA EREDUA:

Ikusmira zientifikoduna

DBH1	Teknologia eta digitalizazioaren hastapenak	Irakasgai hau gizarte gero eta digitalizatuagoan izaten diren aldaketa sakonak ulertzeko oinarria da, eta horretarako trebetasun jakinak garatzea du xede. Besteak beste, teknologiaren erabilera kritikoa, arduratsua eta iraunkorra eta horrek gizartean, ingurumen-iraunkortasunean eta osasunean dituen inpaktuen balorazioa, eta sarean parte hartzeko ezarritako protokoloak eta arauak errespetatzea.
DBH3	Kultura zientifikoa: IKT	Zientzia kulturaren parte gisa nabarmentzeko, ikasleen ezagutza zientifikoa sustatzeko eta kultura zientifikoa esparru guztietan zabaltzeko helburua du gai honek. Kritikoki analizatuko da zientziak eta aurrerapen teknologikoek pertsonen bizitzan eta osasunean duten eragina, ebidentzia zientifikoetan oinarritutako iritziak prestatzeko eta interes zientifiko-soziala duten gaitan aktiboki eta arduraz parte hartzeko. Ikusmira zientifikoduna eta erabaki-hartzaile kritikoa izatea eta hori indartzea izango du helburu gai honek.

PERTSONA EREDUA:

Ikusmira zientifikoduna

DBH4	Matematika tailerra	Matematika tailerraren oinarriak metodologia aktiboa eta erreminta teknologikoen erabilera handia egitea dira. Ikasgaiaren helburua matematika erakargarri bihurtzea da intuizioaren, aurkikuntzen eta sormenaren garapena bultzatuz, baita problemen, estrategia-jokoen, frogantza bisualen eta beste jarduera erakargarri batzuen ebazpenari aurre eginez ere. Hori guztia baliabide digitalekin aberastuta. Ikusmira zientifikoduna eta lankidetzan ikaskide izatea ahalbidetuko du gai honek.
-------------	---------------------	--

PERTSONA EREDUA:

Osasun orekaren zaintzailea

DBH1- DBH4	Osasun fisikoa eta emozionala I, II, III, IV	Irakasgai hau praktikoa eta parte-hartzean oinarritutakoa da funtsean, eta lagungarria da ongizatea lortzeko eta bizitza aktiboa eta osasungarria sustatzeko. Haren bidez, Heziketa Fisikoaren arloan landutako alderdiak sakondu nahi dira, eta mugimenduaren beharrari erantzuteko eta ongizate fisikoa, emozionala eta soziala indartzeko konpromiso motorrerako denbora gehiago eskaini nahi zaie ikasleei. Osasun orekaren zaintzaile izaten trebatuko dira.
-----------------------	--	--